



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA	2026SUBV0003
COD.EXP.	
ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	DIRU-LAGUNTZA
TITULARRA TITULAR	ASOCIACION DE DONANTES DE SANGRE DE GIPUZKOA
NAN DNI	G20040838

AZKOITIKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEAREN ARTEKO

HITZARMENA

BILDU DIRA

Alde batetik, Sonia Vazquez Tejerina, Azkoitiko Udaleko Gizarte Ongizate Saileko zinegotzia-delegatua eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean. Baita ere ekintza honetan Azkoitiko Udal Idazkaria den Izaro Sudupe Altuna parte hartzen duelarik, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren, Estatuko gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena, 3.2 i) artikulua araberara.

Bestetik, Sabin Urcelay Uranga (NAN 15996058H), IFK G20040838 duen Gipuzkoako Odol Emaileen lehendakari bezala eta haren ordezkari, helbidea Manuel Lekuona, 1-Behea, 20018 Donostia duena.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioa aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, dirulaguntza arautzen duen hitzarmenean eta dirulaguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako dirulaguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua araberara aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera,



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Gipuzkoako Odol Emaileen elkarte irabazteko asmorik gabeko elkarte da, Azkoitiko Odol Emaileen delegazioak 1968. urtean ekin zion bere ibilbideari, baina Gipuzkoako elkarteak 1964ko azaroaren 26an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean ASRPG00242 zenbakiaren inskribatuta dago.

III.- Azkoitiko Odol Emaileen delegazioak, Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearekin elkarlanean honako ekintzak antolatu ohi ditu:

- Odol ateraldiak sustatzea eta gauzatzea.
- Odol ateraldietarako kudeaketa aurrera eramatea.
- Odol emaileen erregistro eguneratua mantentzea.

Helburu bezala 2026. Urterako 17 ateraldi eta aurreko urteko odol-poltsetara iristea.

IV.- Lankidetzaz hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Azkoitiko Odol Emaileen delegazioak jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrek parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Dirulaguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, 2025. urtean Gipuzkoako Odol Emaileen Azkoitiko delegazioak aurrera eramaten dituen ekintzak finantzatzeko erabiliko da.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.13 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako dirulaguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2026. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako dirulaguntza Gipuzkoako Odol Emaileen Azkoitiko delegazioari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak aurkeztu duen programa/proiektua aurrera eraman dezan: 2026. urtean Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak Azkoitiko delegazioak Azkoitian aurrera eramango dituen ekintzak hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa/proiektuak sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke diru-laguntza.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko Azkoitiko delegazioari 2026. urterako 5.000 EUROKO dirulaguntza emango dio programa/proiektuan aurreikusitako ekintzetarako, 2025eko udal aurrekontuko partida honetatik: 4000.481.230.00.08 dirulaguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2026ko programa eta jardueren proiektua.
- 2026ko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.
- Aurkeztutako programa/jardueren proiektuaren arabera, Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteko Azkoitiko delegazioak honako ekintzak antolatu/aurrera eramango ditu:
 - Odol ateraldiak sustatzea eta gauzatzea.
 - Odol ateraldietarako kudeaketa aurrera eramatea.
 - Odol emaien erregistro eguneratua mantentzea.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) Zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Poliziaren Zuzendaritza Nagusia:

— Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren nortasun datuen kontsulta eta egiaztapena.

2. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:

— Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

3. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra:

— Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

LAUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programa/proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, “Azkoitiko Udalaren laguntzarekin” esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- a) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Gizarte Ongizate Sailari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- a) Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- b) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatiko diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

BOSGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

5.1.-Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

5.1.1.-Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordean onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu diru-laguntzaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioren bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

5.1.2.-Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

5.1.3.-Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

2026ko abenduaren 31an amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zuritzeko eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2027ko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- a) Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.
- b) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- c) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan froga balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Departamentuak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.
- d) Jaso-izanaren egiaztagiria begiratuko dira, 300€tik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin al den egiaztatuko da. Gainera, Igorle beraren Jaso izanaren egiaztagiri aztertuko dira eta PFGZren atxikipena al duten egiaztatuko da, beti ere igorlearen kopuru metatua 300 €tik gorakoa bada.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Diru-laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurituta izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen Azkoitiko delegazioaren gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen Azkoitiko delegazioari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen lanean ari diren langileez eta Gipuzkoako Odol Emaileen elkartearen izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalarari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalarari:

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- a) Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko aukeraren inguruan.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAIKAGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajaz konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarrekin diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Gizarte Ongizate Saileko
Zinegotzi delegatua

Gipuzkoako Odol Emaileen
Azkoitiko delegazioa

Sonia Vazquez Tejerina

Sabin Urcelay Uranga

Azkoitiko Udaleko Idazkaria
Izaro Sudupe Altuna

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKU91b92536-7dc3-48c5-b6d2-ea57908dd763

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026SUBV0003-Hitzarmena/Convenio (ASOCIACION DE DONANTES DE SANGRE DE G